



IKASTETXEEK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUNA EMATEA ETA GAUZATZEKO PROPOSAMENA EGITEA

Lehenik eta behin, eskertu nahi dizuet aurkeztu zaizuen proposamena aztertuz egin duzuen ahalegina. Begi-bistakoa da ikastetxeok proposamena landu eta zuen hezkuntza-komunitateek sentitzen dutena adierazten saiatu zaretela, zuen ekarpenak egiterakoan.

Aurkeztutako proposamenei ordaina emateko orduan, lehenik, ikastetxe gehienek aurkeztu dituzten hainbat aspektu komun komentatzen ditugu eta, bigarrenik, jarduteko esparru berria aurkezten dugu.

Aspektu komunak

Aspektu komunak komentatzerakoan, egokitzat jo dugu ekarpenak multzo desberdinen arabera taldekatzea.

1. **Hezkuntza-proiektua.** Ikastetxeen bategitea prestatzeko hezkuntza-proiektua landu beharra azpimarratzen da. Aurreko bileran komentatu zenez, gai hau funtsezkoa da eta ez dago batere ahaztuta. Uste dugu alde aurretik lan bat egin dela eta lan hori oinarritzat hartu behar dela hezkuntza-proiektu berria prestatzeko. Hori dela eta, garai honetan egokiena hezkuntza-proiektua zehazteko lan-batzorde bat antolatzea da.
2. **Zuzendaritza-taldea.** Funtsezkoa den beste aspektu bat da. Hasiera batean, komenigarria izango litzateke, aurreko bileran adierazi zen bezala, talde hori lehenbailehen eratzea eta, ahal bada, ikastetxe guztietako pertsonak parte hartzea. Otsailean zehar, lan-talde bat eratuko da, hurrengo hiru ikasturteetarako antolaketa eta jarduera bere gain hartzeko.
3. **Irakaslegoa.** Hasiera batean, malgutasunez jokatu da. Izandako matrikulazioa ezagutu ondoren, matrikulazio horren arabera lanpostu-zerrenda prestatuko da. Alde horretatik, DBHko lehen zikloko plantillak zehaztuta egon behar du, eta plantilla horren arabera, behin betiko irakasleek osatutako lan-taldea antolatuko da, ziklo horretako eta bereziki DBHko lehen mailako curriculum-proiektua prestatuz joan dadin. Lan-talde hori ~~otsailean~~ *Martxoan* hasiko litzateke lanean.
4. **Beste hezkuntza-proiektu batzuk** (IKT, HNP, PIEE, CD ...). Alde horretatik honako hau adierazi nahi dugu:
 - a. Curriculum anitzeko programen onuradun izateko aukera emango zaie horien premia duten ikasleei.
 - b. Gainerako programak, hasiera batean eta behin betiko bategitea gauzatu arte, egungo errealitateari egokituko zaizkio.
5. **Azpiegiturak.** Unitate Teknikoarekin eta Udalarekin lanean ari gara, alde aurretik kudeaketa guztiak egin eta gero handitze- eta egokitze-proiektua lantzen eta betetzen lehenbailehen hasteko. Ikastetxearekin kontaktuak izango dira iakinaren gainean jartzeko eta proiektuaren ~~betetze prozesuaren jarraitapena~~ *egiteko*.



6. **Zerbitzuak.** DBHko 1. mailako ikasle guztiei jantoki-zerbitzua eskainiko zaie, eta gainerako ikasleek egun dituzten zerbitzu berberak izango dituzte. Garraioa Hezkuntza Sailak finkatuta dituen parametroen arabera antolatuko da, hau da, zerbitzua emango zaie baldintzak betetzen dituztenei.
7. **Matrikulazioa.** 2010-2011 ikasturteko matrikulazio-prozesua bakarra izango da. Horrek esan nahi du DBHko 1. mailako ikasle guztiak ikastetxe berrian matrikulatuko direla. Gaur egun udalerriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako 6. mailan dauden ikasleek onartuak izateko inprimakia bete beharko dute, institutu berrian eskolatzeko borondatea konfirmatzeko. Inprimaki hori aurkezten ez bada, ikaspostua gordeta edukitzeko eskubideari uko egiten zaiola ulertuko da.

Onartuak izateko eskabide-inprimakiak egungo Hernani BHIn aurkeztuko dira.
8. **Lehen mailetako ikasleak kokatzea.** DBHko ikasleak, hasiera batean, Agustin Iturriaga eraikinean kokatuko dira. Jarduteko modua adierazita dago jarraian zehaztuko den jarduteko esparruan.
9. **Familien parte-hartzea.** Eskola-komunitatearen osagai direnez gero, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen eta ikastetxeak berak erabakitzen duen bezala hartuko dute parte.
10. **Komunikazio-plana.** Gure ustez, Hezkuntza Sailak eta zuzendaritza-taldeek batera egin behar dute lan.

JARDUTEKO ESPARRUA

Aurkeztu diren iradokizun eta proposamen guztiak aztertu eta kontrastatu ondoren, ulertzen dugu badagoela jokatzeko beste modu bat, hasieran aurkeztu denaren alternatiboa dena.

Ikastetxeen multzo handi batek bategitea irudikatzeko orduan susmoak edo distortsioak ekiditeko nahia azaldu du, eta desira horretan oinarrituta aurkezten da jarduteko esparru hau. Abiapuntutzat hartzen da ikastetxe berri bat sortzen dela eta ez zaiola inor beste inori gailendu behar. DBHko 1. mailako ikasleen bategitea atzeratzen bada, egoera horrek eragina izango du ikasleengan hurrengo ikasturtean, DBHko 1. mailan ikasle bakoitza "bere" ikastetxean ikasten egon ondoren gertatuko baita bategitea. Hori dela eta, gure ustez, bategitea hasieratik bertatik eginez gero, eragozpen baino abantaila gehiago izango dira.

Ekarpenak ikusirik, badirudi egokiagoa dela eskolatzea Agustin Iturriaga eraikinean hastea, eta, beraz, ikasleen banaketa eta ikasleen bategite osoaren denboralizazioa jarraian aipatzen den moduan egingo dira:

2010-2011 ikasturtea: DBHko 1. mailako matrikula bateratua eta ikasle horiek Agustin Iturriaga eraikinean eskolatzea.

Honen arabera Puroengo ikasturterako ikasleen banaketa banaketa izango da:



| Ikasturtea | 10-11 | 11-12 | 12-13 | 13-14 | 14-15 | 15-16 | 16-17 | 17-18 | 18-19 |
|----------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Elizatzko | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Urumea | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Sta. Bárbara | 9 | 6 | 20 | 21 | 21 | 21 | 21 | 21 | 21 |
| A. Iturriaga | 6+6 | 13+6 | 6+7 | 6+8 | 7+8 | 7+9 | 7+9 | 7+10 | 7+10 |
| Guztira | 33 | 33 | 33 | 35 | 36 | 37 | 37 | 38 | 38 |

Banaketa honetan ikusten denez, lehenengo bi ikasturteetan, hau da, 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan Agustin Iturriaga eraikinean eskolatuko dira, hurrenez hurren, DBHko 1. mailako ikasleak eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak, baita Batxilergokoak ere, DBHko gainerako mailletako ikasleak gaur egungo eraikinetan eskolatuta egongo diren bitartean.

2012-2013 ikasturtean ikasle guztien bategitea eta behin betiko kokapena gertatuko da: DBHko 1., 2. eta 3. mailletako ikasleak Santa Barbara ikastetxean egongo dira eta DBHko 4. mailako eta Batxilergokoak, Agustin Iturriaga ikastetxean.

Banaketa berri horren arabera, gaur egun hiru BHI independenteetan eskolatuta dauden ikasleak gaur egungo kokalekuan jarraituko dute. Eragindako ikasleak egun DBHko 1. mailan daudenak soilik dira, eta DBHko 4. mailan batuko dira guztiak, Agustin Iturriaga eraikinean.

Aurrera eraman beharreko ekintzak

Komunikazio-plana. Elkarrekiko komunikaziorako plana prestatzea, familia guztiei informazioa emateko. Plan hori hilabete honetan bertan abian jarri beharko litzateke, egutegi zehatz bat ezartzearekin batera.

Zuzendaritza Taldea. Zuzendaritza-talde bat eratzea, ahal bada ikastetxe guztietako ordezkariak izango dituen, ikastetxe berria antolatzen eta kudeatzen hasteko. Urtarrilean eta otsailean.

Zuzendaritza-talde honek kudeatuko ditu hezkuntza-proiektua prestatzeko lana, ikastetxe berriaren antolaketa, etab. Hori lortzeko, aspektu zehatzak, hala nola, hezkuntza-proiektua bera eta DBHko lehen zikloaren antolaketa, landuko dituzten batzordeak antolatu ahal izango ditu. Hezkuntza-proiektua prestatzeko eta DBHko lehen zikloa antolatzeko batzordeak martxoan jarriko dira abian.

Azpiegiturak. Horiei buruzko lanean ari gara eta ikastetxearen iritzia aintzat hartuko da azpiegitura horiek mamitzeko. Aurreikusita dago obrak bukatuta egotea 2012-2013 ikasturtearen hasierara iristen garenean, baldin eta tartean gorabehera azpimarragarriak gertatzen ez bada.

Martxoan aztertuko da hurrengo bi ikasturteetan lehen zikloa eskolatzeko zein jarduera egingo diren Agustin Iturriaga eraikinean.

Era berean, 2012-2013 ikasturteetik aurrera 21 ikastalde eskolatu ahal izateko Santa Barbara eraikina egokitzeko bertan zein jarduera egingo diren aztertzen hasiko gara. Bitartean, gaur egungo Langile BHIko ikasleak ez ezik, eskaera egiten duten DBHko 1. mailako ikasle guztiek ere jantoki-zerbitzua erabili ahal izateko jantokia nola handitu aztertuko da.

Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 15a.